

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ikasbil HABE

BAGOA! EGITASMOA

IKASBIL (www.ikasbil.eus) atarian ahozko trebetasunak lantzeko ereduak eskaini ahal izateko, A1 eta A2 mailetarako testuak sortu eta ekoitzi ditu HABEk. Guztira, **A1 eta A2 mailetako 100 ikus-entzunezko testu sortu dira: 50 audio eta 50 bideo.**

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumeko (HEOC, 2015) oinarrizko lerruneko erabiltzaileek (A1 eta A2) beren xede komunikatiboak lor ditzaten proposatu dira ikus-entzunezko testu hauek. Hori dela eta, bakoitzak mailari dagokion egoera komunikatibo bat aurkezten du.



Ekoizpena

Ahozko testu hauek sortzeko, HEOCaren A1 eta A2 maileri dagozkien funtzio, gai, testu-genero, adierazpide linguistiko eta adierazpide testualen zerrendak eta maila hauei dagokien material curricularra (testu-ereduak, dokumentu osagarriak...) hartu dira kontuan, eta oinarri eta eredu izan dira.

Ahozko testuok motibagarriak eta komunikazio errealaren eredu izan nahi dute. Ongi testuinguratuta, errazak eta motzak dira. Bideo eta entzungaiek, batez beste, 2-3 minutuko iraupena dute.

Pertsonaia nagusiak Josu eta Amaia dira. Ikasleak eta etxeko lagunak. Beren eguneroko bizitzako gorabeheren berri izango dugu atalez atal: pasadizo hurbil, atsegin eta askotan umoretsuak biziko dituzte elkarrekin.

Bideo eta audio hauek Donostiako *Zinea Sortzen* ekoiztetxeak sortu ditu, Ritxi Lizartzaren gidoietan oinarriturik. Bi aktore nagusiak Oihana Maritorea (Amaia) eta Asier Oruesagasti (Josu) dira. Bideoak Alex Ezkurdia zine-zuzendariaren gidaritzapean grabatu dira eta musika, berriz, Pascal Gaignerena da.

Argitalpena

Asmoa da ikus-entzunezko eduki hauek IKASBIL atarian 2015ean zehar argitaratzea, sekuentzia didaktiko eta guzti.

A1eko materialak argitaratuko dira lehendabizi eta astero bi unitate argitaratzea aurreikusi da: audio bat eta bideo bat. Guztira, A1 mailako 25 bideo eta 25 audio osatu arte. Hauek argitaratu ondoren argitaratuko dira A2 mailakoak, 2015eko udazken aldera, seguruena.

Proposamen didaktikoa

Proposamen didaktikoari dagokionez, audio eta bideo bakoitza oinarri hartuta sekuentzia didaktiko bat sortu du HABEk. **Sekuentzia-sorta honek, hala ere, ez du ikastaro bat osatzen.** Sekuentzia bakoitza bideo edo audioan gertatzen den egoera komunikatiboa lantzeko diseinatu da; beraz, autonomoak dira. Nolanahi ere, egia da bideo eta entzungaien pertsonaien bizipen eta gertaeretan oinarrituta dauden neurrian, pasarteen artean hari narratiboa egon badagoela. Hori dela eta, **sekuentziak zenbakituta** datoz, gertaeren logikari jarraituz, eta **didaktikoki katalogatuta** irakasleek programazioetan aise txerta ditzaten.

Aukeratu den planteamendu didaktikoak baditu ezaugarri jakin batzuk: ikasgelan irakaslearen gidaritzapean audio eta bideoak ikus-entzun, ulermen-jarduerak egin eta beste ikaskideekin batera ekintza komunikatibo bat burutzeko diseinatu dira sekuentziok. Lan osagarri gisa, proposamen didaktikoak jarraipena du ikasleak bakarka egiteko jarduerak ere aurkituko baititu.

Sekuentzia didaktikoen ezaugarri nagusiak

Sekuentzia guztietan audio edo bideoan aurkezten den testuinguru eta hizkuntza aztertuta, entzumena lantzeko jarduerak eskaintzen dira. Batzuk gelan aurrez aurre eta beste batzuk bakarka egitekoak dira.

Ikasgelan

Ikasgelan bizpahiru entzunaldi eginda, ulermen orokorra eta xehea helburu duten jarduerak proposatu dira. Jarduera hauek aldeztu aurretik aurrezagutzak suspertu ondoren egiteko dira. Ondoren datozen ariketetan arreta hizkuntza-dukiren batean jartzen da eta hizkuntza-duk hori ekintza komunikatibo batean erabiltzeko beharra eragiten du azken ariketak. Une hori da jasotako inputa modu esanguratsuan erabiltzeko unea, bai talde txikian eta baita talde handian ere.

Lanketa honek **irakaslearentzako gida didaktikoa** ere badu. Gida honetan ariketa bakoitzaren antolaketa, hizkuntza-aurreikuspenak, ariketa osagarriak eta iraupena zehazten dira.

Ikasmaterial hau, bai ikaslearen orria eta baita irakaslearen gida ere pdf artxiboetan argitaratuko da, eta bideo edo entzungai jakin horri dagokion IKASBILeko ataza-fitxan izango du sarbidea.

Bideoek bi bertsio dituzte: azpitoluekin eta azpitolurik gabe. Biak daude eskura, fitxa horretan bertan.

Bakarka

Bakarkako entzunaldietan ikaslea bere kasa arituko da. IKASBIL atarian egingo ditu ariketak online. Atal hau bizpahiru ariketez osatu da.

Gelan aritutako ikasleak bakarkako lan honi ere ekin diezaioke, aldeztu aurretik irakasleak beharrezko azalpenak eman eta zalantzak argituta.

Bakarkako proposamen hauek, hala eta guztiz ere, ikasgelan aritu ez direnek egiteko modukoak ere badira. Hori dela eta, ulermenean eta hizkuntza-dukiren batean arreta jartzeko diseinatutako jarduerak dituzte atal honek.

Egitasmo honen inguruko edozein argibide behar izanez gero, jar zaitezte harremanetan gurekin: info@habe.eus

IKASBIL atariaren lantaldea